

# TOURNE

Des-Kontrol taldea Arrasaten eratu zen 1996an. Esan daiteke Arrasate Euskal Herriko punka eta oi! musikaren sorlekuetako bat dela. Arrasatek eman dituen talde punk mitikoen oinordekoa da, eta haren babesean sortutako taldea ere bai. Lotura horrek zuzenean garamatza ondorioetara eta Debagoiena bailaran punk eta oi! musika-mugimenduak dituen jarraitzaile kopuruan garbi ikusten da. Hamar urte hauetan Des-Kontrol taldean egon den aldaketa bakarra 2004an gertatu zen; Oier baxu-jotzaileak gitarra hartu zuen Osoron gitarra-jotzailea ordezkatzuz (orain Gatillazo eta Gose taldeetan dagoena), eta haren anaia, Hodei, hasiko da baxua jotzen.

Des-kontrol taldeak hamar urte bete ditu, eta boskotearen historia aztertzea erabaki dute. Hamar urtetan gauza anitz egin dituzte, eta argitara emateko nahikoa material dutela konturaturik horretan sartu dira buru-belarri azken hilabeteetan.

Des-Kontrol taldearen bostgarren lan luzea da "Hamar urte" (DVD gehi CD digipack euskarrian). DVDan taldearen bizitzari birpasa mardula egiten zaio, taldekideen beraien azalpenak, lagunei eta beste musikariei egindako elkarrizketak, argazkiak, zuzeneko irudiak, bideoklipak... Des-Kontrol taldearen nondik norako zehatza eta argia. CDak ez du zer ikusirik DVDarekin. Beno, bai. CDan Des-Kontrol taldeak gustukoen izan dituen musika taldeen abestien hamar bertsio datoz: Juicio final (ZAKARRAK), Propaganda (BLITZ), We're coming back (COCK SPARRER), Barrio Nuevo (PUÑETAZO), Folsom prison blues (JOHNNY CASH), Una vez más (ISKANBILA), Mommy's little monster (SOCIAL DISTORTION), Crimen de estado (RIP), Ruby soho (RANCID), Johnny appleseed (JOE STRUMMER). CD audioaren grabaketa Kike Mora soinu teknikariak egin du 2007ko urrian Boluetako (Bilbo) Baga-Biga estudioan; produkzioan eta nahasketetan Nako eta Magu izan ditu laguntzaile. Diskoaren grabazioan honako musikari hauek, besteak beste, parte hartu dute: Oscar "Zakarrak", Jul "Rip"ek, Gotzon "Iskanbila"k, Porru "Puñetazo"k... "Hamar urte" DVDaren grabazio lanetan Oskar Iglesias "Hell Hell" ibili da eta Maguk, Niñuk eta Oskarrek ekoitzi dute. Usa Tour 2007ri dagozkion irudiak Jose Ramon Txopiteak grabatu ditu 2007ko martxoan eta apirilean Euskal Herrian eta AEBn emandako kontzertuetan.

Des-Kontrol taldeak egiten duen musikak 70eko punkaren eta 80ko oi! eta streetpunkaren eragin zuzena du. Des-Kontrol taldeak musika-mugimendu horiek hartu ditu oinarritzat eta horiekin bizi da: rock borrokalaria, oi! militantea, streetpunkaren jarrera, punkaren izaera eta underground kulturaren defendatzaile sutsua... Des-Kontrol taldea egindako lanaren emaitza jasotzen ari da; Euskal Herriko eta estatu espainoleko streetpunk eta oi! mugimenduen erreferentea da. Atzerriko eta estatuko hainbat streetpunk-bildumatan ere hartu dute parte.

## 1.- Zergatik bertsio diskoa hamargarren urteurrenean?

Des-Kontrolleko hamar urteak jorratzen dituen lan honek garrantzi handia du taldearentzat. Hasiera baten dvd-a bakarrik ateratzea zen asmoa baina gehiago eskaintzea pentsatu genuen eta horrela agertu ziren hamar abestiak. Bertan agertzen diren taldeen omenean eginikoak dira, hauetariko batzuk Des-Kontrolen sorreran eragin handia izan baizuten.

## 2.- Zein gaurkotasun dute kantu horiek? Garaiko punk musikaren isla izan ziren?

Ez dugu begiratu gaurkotasunik duten edo ez, gustuko ditugun abestiak dira eta gure lan batean pentsatu genuen. Bai, Zakarrak, Iskanbila, Rip eta Puñetazo Arrasateko taldeak dira eta eragin handia izan zuten Des-Kontrolen hasierako pausuetan. Bestalde, Johnny Cashen eta Joe Strummerrren abestiak beraien omenez eginikoak dira... Cock Sparrer eta Blitz taldeak Ingalaterran izan zen oi! eta punk mugimenduaren aintzindariak dira eta beti izan ditugu oso gustuko, bereziki Cock Sparrer, hamar urte hauetan gehien bertsionatu dugun taldea izan da. Social Distortion eta Rancid azken urteetan gudan influentzia handia izan duten taldeak dira. Hasieran Euskal Herriko eta Erresuma Batuko punk oi! mugimenduak izan zuen eragina taldearengan eta azken aldian, berriz, Estatu Batuetako eszenak eragin nabarmena izan du Des-Kontrol taldearengan.

## 3.- DVDan Des-Kontrol taldearen ibilbidea aztertzen duzue, AEBko bira, denetarik sartu duzue, ez da kontzertu soila...

Ez da kontzertu soil bat, ez. Taldearen ibilbidea hasieratik ia gaur eguneraino azaltzen duen dvd-a da; iritzi, elkarrizketa, argazki... editatu gabeko abestiak... honez gain ere, AEBko bidaiaren irudiak ere agertzen dira... ia gustuko duzuen.

**Aritz:** ahotsa **Oier:** gitarra eta ahotsak **Markel:** guitarra **Iker:** bateria **Hodei:** baxua

(ritxi Aizpuru, 2007ko Abenduak 5)

